

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Hizkuntz paisaiatz “Hizkunea”n

SOZIOLINGUISTIKAKO AGERKARI digital horretan, Jasone Cenoz eta Durk Gorter Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko katedradunek hizkuntza paisaiatz artikulua luze eta sakona idatzi dute. Euskal Herriko eta nazioarteko ikerketak azaldu dituzte, baita ondorioak atera ere.

Zingizangoren webgune berriua

URTEBETE da Legazpin (Gipuzkoa) Zingizango euskara elkarteak sortu zela eta bertako kideek adierazi dutenaren arabera webgunea da orain arte

egindako lanik esanguratsuenak. Webguneak ez du editorerik eta ez daukate langile liberaturik, baina ataria berritu dute eta edukiz ederki hornitu.



Jacques Etcheverry euskaltzain urgazlea hil da

MARTXOAREN 22AN hil zen Donibane Lohizunen jaiotako lapurtarra (1921). Pariseko Sorbona Unibertsitatean

Filosofia eta Psikosoziologia ikasketak egin zituen, eta 1965ean euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. *Gure Herria* aldizkarian hainbat artikulua idatzi zituen eta *Lapurdi itsas-hegia* liburua argitaratu zuen 1977an.

EHE Atarrabian

APIRILAREN 6AN Euskal Herrian Euskarazek Hizkuntza Eskubideen Eguna ospatuko du Atarrabian (Nafarroa). Egun horren karietara zabalduko iritzi artikulua zatitxo da segidakoak: “Hizkuntza eskubideen defentsan ari-tzea ere gero eta gogorrago zigortzen da. Eskubideen bermea helburu behar-ko luketen politikek herritarrak zigortu eta eraso berriak antolatzen dihardute”.

BAHEA

[2008a Hizkuntzen Nazioarteko Urtea izendatzeaz Isidor Marik gipuzkoaeuskara.net esanak:](#) “Izan ere, NBEk erabaki horren berri emateko dokumentuan, Nazio Batuen jarduteko konpromisoei buruzko oso aipamen gutxi egiten ziren. Lehenengo, NBEk gonbidapena egiten zion mundu mailako gizarteari, hizkuntz aniztasunak duen garrantziaz ohartu eta horren alde lan egin zezan, eta, gero, NBEren jardueretan erakundearen sei hizkuntza ofizialen erabilera bultzatzeko asmoa azaldu besterik ez zuen egiten. Benetan eskasa eta epikarik gabeko asmoa. Hori zela eta, Crystal irakasleak iruzkin ironiko bat egin zuen 2008ko beste ospakizun bati buruz, 2008a Patataren Urtea ere izendatu baitute, mundu mailako elikaduraren alde tuberkulu honek egindako ekarpenarengatik, agian. Txantxak txantxa, Nazio Batuek –eta UNESCOk, bereziki–, hizkuntzen iraupenerako aurrekontu handirik ez izan arren, arreta handiagoz zaindu behar lituzkete hizkuntz aniztasuna bermatzeko asmoz nazioartean finkatzen diren konpromisoak; izan ere, horiek ez dute inbertsio handiegirik eskatzen, bai, ordea, benetako borondate politiko eraginkorra”.

TALAIAN

Vital Kutxako botererako borroka

Aste honetan ezagutuko da Arabako Vital Kutxaren organigrama berria, hilaren 30ean eta 31n egindako batzar orokor eta kontseilu bileraren ostean. Lehendakaria eta kontseilariak izendatu behar dira, eta litekeena da kutxa arabarraren gizarte-ekintzan boterea izango duen lehendakariordetza exekutibo berria ere sortzea. Batzar orokor horretan, PSE eta EAJK dute euren hautagaitza Administrazio Kontseilura eramateko aukera gehien. Azken horrek PSEko Gregorio Rojo izendatu beharko du lehendakari eta Arabako EAJKo lehendakari den Iñaki Gerenabarrena lehendakariorde exekutibo. Erabaki horiek auzitegiaren buka lezakete, PPK organigrama berri hori eragozteko asmoa agertu baitu.

Hori guztia azken asteetan ezagutu da, arabar kutxa kontrolatzeko borroka baita. Zer dago politikariek Vital Kutxako boterea lortzeko daramaten borroka zantar horren atzean? Batzuek esango dute hainbat alderdik kutxa arabarrarentzako prestatutako programak daudela. PSE eta EAJ EAEko kutxen bat-egitearen alde daude, PPK berriz, uko egiten dio. Hala ere, botererako borrokan hainbat interes daude: ekonomikoak, pertsonalak eta alderdikoak. Eta bakoitza bere alderdikideak behar den lekuan kokatzen saiatzen da. Ezin da ahaztu Vital Kutxako lehendakariak 150.000 euro inguru irabazten dituela eta lehendakariorde exekutibo berriari 100.000 euroko soldata ezar dakiokela. Kontseilari bakoitzak 22.250 euro jasotzen ditu urtean dietetan. Rojok lehendakari modura errepikatuko luke. Gerenabarrena, berriz, Parlamentua uzteko prest egongo litzateke, bateraezintasunagatik. Urtean 68.000 euro jasotzen ditu han eta lehendakariorde bezala 100.000 euro irabaziko lituzke. Kutxa kontrolatzeak enpresa baliabide eta baliabide ekonomikoak izatea ere esan nahi du. Interes ugari edozein alderdi politikorentzat.

Juan Mari Arregi

Ibarretxeren edo kontsultaren erorketa

HAUTESKUNDE aurreko hilabete eta asteetan indar handiz entzuten zen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak urte bukaera aldera egingo zirela, azaroko data ere entzun izan zen. Eusko Jaurlaritzako bide-orriak ere aurreikusten zuen halako eszenatokirik, Ibarretxe lehendakariak iragarritako kontsultaren testuinguruan.

Eta orain zer? Orain seguruenik EAJk denbora beharko du bere mezua ondo hausnartu eta berau gizarteratzeko. Sozialistekin konpondu behar dutela argi dago jeltzaleen artean, intentsitate mailan egon daitezke desberdintasunak. PSEk eta EAJk adierazi dute jada aurrekontuan eta gobernagarritasunean ez dela arazorik izango; Vital Kutxan Gregorio Rojoren inguruan lortutako akordioak ere behin eta berriro atzeratu den kutxen batasuna ekar dezake behingoz.

Baina gatazkaren desblokeorako formularen ez da aurrera egin oraindik, eta Ibarretxe planaren kontsultak joan den irailean EAJri ekimen politikoa berreskuratzeko balio bazion ere, oraingoan ez du argi halako zama gaitetik nola kendu. Ibarretxe lehendakaria eta hirukoa oso ukitua geratuko lirateke kontsultarena aurrera atera



Espainiako Diputatuen Kongresua.

ezean; eta bide-orriarekin jarraituz gero, konfrontazio maila bat bederen sustatu beharko lukete, kontsultaren inguruko dinamika politikoa ez bailitzateke errentagarria giro lauso eta txepelean, are gehiago sozialistak euren garaipena gozatzeko eta hedatzeko ari diren honetan. Ez da hau samurra eta seguruenik ez da hartuko azken lau urteetan EAJn izandako barne tentsio hori dantzan jarri barik.

Eta nola aterako da onik Ibarretxe ataka honetatik? Kontsultaren bideari sendo eustekotan bakarrik litzateke logikoa beste legealdi bat

errepikatzea, gestioingintzan arituko den gobernu bat gidatzeko, jeltzale askoren ustez hobe litzateke bidea beste norbaiti uztea. Ibarretxek berak, bigarren legealdian argi esan zuen gatazkarekin amaitu ezean, beste buruzagi batzuen ardura izan beharko lukeela haren konponbidea bideratzearena. Heldu da bidegurutzera.

PSOEn posizioa samurragoa da, oraingoz itxaron. Datorren astean, Espainiako Diputatuen Kongresuan, Jose Luis Rodríguez Zapateroren izendapenean lehenengo zantzuak argiago ikusiko dira.

GORTEETAKO politikak bere bidea jarraitzen duen bitartean, Fernando Etxegarai euskal preso ohiak beste lau urte gehitu beharko dizkio bere 21 urteko espetxealdiari. Parot doktrinaren azken danbategia izan da, orain arteko krudelenetakoa. Mina egiten ari da aipatu doktrina euskal presoen artean, baina saminez gain, gorrotoa ere barreiatzen ari da presoekiko gertutasun humano eta ideologikoa duen gizarte sektorean. Halako enboretik gaitza da gorrotoa eta mendekua ez den bestelako ezpalik ateratzea. Eta horretan gaude.

gure
arte
euskaraz

BFA
DFB
Euzko Foru Alkartasuna
Deputación Foral de Bizkaia